

PuLunPe

153. Zenbakia

ANUE, ATETZ, BASABURUA, IMOTZ, LANTZ, ODIETA ETA ULTZAMAKO ALDIZKARIA



OLERKIA

ZAPATA GORRIAK

Zapata gorriak oin txiki
eta bilduetan
ta pauso txikiak,
oinez joan bakoitzetan
urduri antzean
noizbait edurretan sutsu
saiatzen zinenean
estilo politaz,...
zurea baino azkoz hobea...
hala esaten zenidan

ile ilun hura sorbaldetan
erdi laztantzen
beltzaranagotzen,
zein kaoba kolorez
arro ta kapritxosa

Mikel Urdangarin



PULUNPEK EZ DU BERE GAIN HARTZEN ALDIZKARIAN ADIERAZITAKO
ESANEN ETA IRITZIEN ERANTZUKIZUNA

Argitaratzailea AMETZA KULTUR ELKARTEA..
Pulunpe Sarea: Euskara Zerbitzua, Gurutze, Eurne, Laia, Ainara, Patxi,
Goizargi, Inma, Izaskun, Maitane, Alicia, Bakartxo, Iñigo, Irantzu, Josu,
Arantxa, Iñaki, Jese, Maika, Asier, Facebooken parte hartzen duzuenoi, etab...
Barkatu aipatu ez zaituztedanoi.
Emaila: pulunpe@gmail.com
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Sareko taldekideez gain, Txurdan.

Koordinatzaileak: Lur Gil Rey eta Iosu Martinez Urdaci.
Tirada 1.600 ale.
Inprimategia: Gertu - Maketazioa: Iosu M.U
Lege gordailua: NA 721/93
2016KO EKAINAREN 6AN INPRIMATEGIRA BIDALIA.



Ametzaberrri

Miren Urriza Erbiti eta Luis Mariñelarena Saralegi, Lanzko banatzaileak

Lusek Ultzamatik Lantzi dagokion kutxa hartu eta hara eramaten du, eta Miren arduratzen da banatzeaz. Ez da, ordea, bakarrik joaten, lagun eta hurrekin paseotxo bat ematen duen bitartean banatzen ditu.Lanzko euskararen egoeraz, aspaldiko kontuez eta herriko bizitzaz aritu gara haiekin.

Nola dago euskararen egoera Lantzen?
LUIS MARIÑELARENA: Haur guztiek dakite euskaraz Lantzen, baina haien artean ez dute egiten. Gure alaba, adibidez, euskaldun itxia zen txikitan, eta Larraintzarko ikastetxean erdaraz egiten dute. Zaharrak bi baino ez dira geratzen euskaraz dakitenak, Patxiku eta Julian, azken hau Elizondoko erresidentzian dago. Ikaragarri gustatzen zaio PULUNPE Juliani.
Gazteek badute abantaila gurekin konparatuta. Haiek badute euskara, baina estimatu beharra dute, guk ez genuen euskara, eta estimatu behar izan genuen.

Duela zenbat hasi zineten zuek euskara ikasten?
Miren Urriza: Duela 18 urte hasi ziren lehenbiziko euskara klaseak Lantzen.
LUIS: Eltzaburuko Jose Antonio Narbaez etorri zen guregana, AEKn zegoelako eta talde bat ateratzeko proposatu zigun. 15 bat elkartu ginen orduan.
MIREN: Ni bigarren urtean hasi nintzen, aurrekoan Iruñean ikasi nuen, eta gero Lantzen hasi.
LUIS: Jauntsarasko dendan ibiltzen den Laura hasi

zen irakasle. Oso irakasle ona, eta gustura geunden, baina gogorra zen etxetik elkartera joatea lanak akitu berritan, nekatuta baikeunden. Agustin Iribarrenek pizten zigun sua, gaztainak eraman noizbehinka eta berak ere euskara maila txukuna hartu zuen.
Joxe izan genuen irakasle gero, nik utzia nituen klaseak jada, baina neskalagunak animatu ninduen berriz ere ikastera. Joxek Geronimo deitzen ninduen, ez bainekien aditzik ez deus. Eta irakasle honekin hasi ginen txondor eguna egiten. Oso polita zen. Geroza utzi da, baina orain euskararen eguna egiten da.
MIREN: Hilabete honetan dugu euskararen eguna, ekainaren 18an.

Eta zer moduz bizi zarete hemen?
Luis: Asko aldatu da herriko bizitza. Aitarekin herria zeharkatzeko ordu erdi baino gehiago egoten ginen, batekin geratu, bestearekin... eta amak dendara, oraingo Isabel Baleztenaren etxera bidaltzen gintuen mandaturen bat egitera kalean bageunden, beraz erdi ezkutuka ibiltzen ginen. Baina hori bai polita, bizitza izugarria zuen Lantzek.





ERAKUSKETA:

Irailaren

EKAINA

Ekainaren 11an Larraintzako eskolako 50. urteurren festa

ERAKUSKETA

LARRAINTZARKO ESKOLAKO 50. URTEURRENA

Larraintzarko eskolako bizipenen islada izango dugu ikusgai argazki erakusketa honetan Milesker argazkiak helarazi dizkiguzuen guztioi!!!

LARRAINTZAR

10 y 11

Ekainak 10 junio: 20:00
Ekainak 11 Junio: 18:30 y 20:30

AXOLAGABE TALDEAK AURKEZTEN DU:
"SER O NO SER"

Izan edo ez izan, hori da gakoa. Zer da arimarentzat zintzoago, kolpe eta bidegabeko geziak sufritzea, edo armak hartu eta ezbeharrez beteriko itsasoaren kontra joan, eta hain aurre eginez, bere bukaera aurkitu?

prezioa: 5€

18:30

SAN URBANO - GASKUE

17

ETA DANTZA SAN URBANON
Natura eta Kultura

Oraingoan gure dantzarien eta amati abesbatzaren kurtso bukaera ospatuko dugu. Dantzeekin hasiko gara kanpoaldean sarrerako haritzaren ondoan eta ondoren abesbatzen topaketa izango dugu ermitaren barruan (Patxi Martinen zuzendaritzapean Amati eta Mirua abesbatzak)

euskaraz
bizi
nahi dut

Laguntza eskatu genuen lehengo PULUNPEN eta irakurle batek lagundu gaitu: Hauek dira identifikatutako neskatoak: M.Rosario Larrayoz, Lourdes Goñi, Natividad Cia, Juana M. Calzado, Itziar Ciganda eta Asunta Berasain. Esker mile Naty!

NAFARROAK 7.321 FAMILIATAN
EZ DAGO DIRU-ITURRI FINKORIK

LANIK GABE DAUDE ETXE BEREAN BIZI DIREN PERTSONAK,
EZ DAGO TARTEAN PENTSIODUNIK EZ ETA LANGABEZIAGATIK JASOTZEN
DEN LAGUNTZA EDO PRESTAZIOAREN BAT JASOTZEN DUENIK ERE.
HALA JASO DU GCOOK TXOSTEN BATEAN.

IKUS AMETZA.EUS WEBGUNEAN
SAN URBANOKO BIDEOA



IKUS AMETZA.EUS WEBGUNEAN
MUSKIZKO ETXE "SOZIALAREN" BIDEOA

SOLO LOS
MUERTOS
VUELVEN
A CASA



FILMAREN PROIEKZIOA
eta Ali Can, dokumentalaren suzendaritzaarekin batera
Ekaiaren 11an, larunbata, 12:00etan
Larrañeta bordan - Eraso

PULUNPE 153

Artilea **nagusi** argazki lehiaketan

Amaitu da Ametzaren argazki lehiaketa berria. Zonaldearekin harremana zuten argazkiak aurkezteko aukera zegoen, eta iaz baino gutxiago jaso baditugu ere, hainbatek parte hartu dute eta argazkiak Jauntsarats zein Larraintzarren jarritako kutxetan utzi.



ARTISAUAREN ESKUAK, Josu Martinez Nieto

Protagonista nagusiak ardiak izan dira, eta zehazkiago esateko artilea. Hiru argazki izan dira sarituak, eta hiruetan ageri da, eta sarituak izan ez direnetan ere, artilea asko agertu da.

Irabazleak bi argazki eder aurkeztu zituen, eta lehen saria eramateaz gain, bigarrena ere eraman du. Alkozko Josu Martinez Nieto dugu, etxean

beste argazki ugari erakutsi dizkiguna, eta benetan argi geratu da oso argazkilari ona dela. Eta hirugarren saria Joxelu Erro Gurbindok eraman du, Eltzaburukoa. Irabazle izan zen joan zen urtean, oso argazki polita aurkeztuta. Aurten ere bi argazki eder aurkeztu ditu, baina hirugarren postutik ezin pasa, irabazlearen maila handia zelako. Honen maila ere ongi frogatuta geratzen da bi urtetan sariren bat eramanez.



AHARIAREN ERRETRATUA. Josu Martinez Nieto



Jose Luis Erro Gurbindo, ARTILEA. Argazkia ez da osorik argertzen hemen.

Josu Martinez, **Alkozkoa**, lehenengo eta bigarren sailkatua



Lehenengo eta bigarren saria, Josu, a ze soldata!

Bai, egia esan soldata polita eraman dut etxera. Ez nuen espero biekin irabaztea, baina beno, hala izan da.

Bi argazkiak artilearekin lotuta.

Bai, lehena geratu den argazkia Lizason egin zen mamiaren egunean ateratu nuen. Han bazegoen Urrozko gizon zahar bat larruarekin arropa egiten zuena, eta argazki batzuk ateratu nizkion. Aurpegiari, eskuei eta abar ateratu nizkion, eta eskuena polita iruditu zitzaidan.

Eta bigarrena?

Niri ardiak eta asko gustatzen zaizkit, eta horregatik

ardien argazki asko egiten ditut. Argazki gehiago ateratu nizkion artalde honi, eta adarrak oso politak iruditu zitzaizkidan. Orduan, gertutik ateratu eta bigarren geratu den argazki hori egin nuen. Antzeko gehiago ere baditut, artalde berari ateratakoak, dozena bat inguru ateratu nizkion. Lantzen, Lizason, Eltzaburur, Belaten eta beste hainbat lekutan ateratakoak baditut.

laz ez zenuen parte hartu, aurten bai eta irabazi.

Bai, iaz ez nintzen konturatu argazki lehiaketa zegoenik ere, eta epaimahairako deitu ninduten. Iazko argazki irabazleak aukeratzen aritu ginen. Aurten, aldiz, ikusi dut lehiaketa zegoela, eta nahiz eta euskaraz ez jakin, lagun bati lehiaketaren oinarriak itzultzeko eskatu nion, eta bi argazki ateratu nituen. Aurten ere epaimahaikide izateko deitu ninduten, baina ezin, argazkiak aurkeztu nituelako.

Argazkilaritza ofizioz edo afizioz?

Afizioz noski. Hainbat lan egiten aritu naiz, tartean Deskarge ostatuan. Eta argazkiena betidanik gustatu zaidan kontu bat izan da. Ardiak gustatzen zaizkit, mendian ibiltzea, eta saiatzen naiz argazki kamera eramaten. Gaur egun telefono mugikorrarekin aski da ia argazki on bat ateratzeko, baina ahal dudanean behintzat argazki kamera eramaten dut.

Joxelu Erro, Eltzaburukoa, **hirugarren** sailkatua



ezta?

Segun zein argazki, indar gehiago hartzen du. Argazkiren batek kolorez, agian ez du deus esaten, baina zuri-beltzez espresio gehiago du.

Iazko lehiaketa zuk irabazi zenuen, zuri-beltzezko argazki batekin gainera

Bai. Eta aurten ere iazkoaren antzeko argazki bat nuen, koloretan. Hori aurkezteko pentsatua nuen, baina iaz zuhaitz bat aurkeztu nuenez, aurten beste zerbaite aurkezteko erabaki dut.

Hirugarren eta bosgarren geratu zara

Bai, bestea basoan ateratako argazki bat zen, lorez betetako alfonbra ematen zuen lurrak. Niri mendian ibiltzea asko gustatzen zait, eta txikitatiki hasi nintzen argazkiak ateratzen. 18 urterekin erosi nuen lehen argazki kamera. Marokora bidaiatu egin nuen gero eta han reflex kamera bat erosi nuen, duela 35 urte.

Iaz irabazi egin zenuen, baina aurten hirugarren, Josu Martinezek bi argazkiekin irabazi dizu.

Bai, asko egoten gara elkarrekin. Badakit gainera ardiekin lotutako gaiak asko gustatzen zaizkiola eta oso argazki politak ateratzen ditu. Irabazi duen argazkia bezalakoa bat badut nik ere, zuri-beltzean. Mamiaren egunean ateratu genion, eta, bai, espresio handia daukate bere eskuek

Zuri-beltzezko argazkiak gustatzen zaizkizu

Haurrak euskalduntzeko, familiek asko egin dezakete

Basaburuko Euskara Batzordeak Paula Kasaresen hitzaldi interesgarri bat antolatu zuen apirilaren bukaeran. Paula, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikerlaria dugu eta euskararen erabileran aditua. Batzordetik idatzi digute ideia hau planteatuz: "Gaur egun, haurrek hizkuntza bat baino gehiago ezagutzen dute; etorkizunean bata ala bestea erabiltzea haien hautua izanen da. Euskaraz egiten dute hala hautatzen badute. Zeren arabera hautatuko dute? Zer dago gure esku?"



Ekainaren 4an Iruñean egindako manifestazioaren irudia. EKINKLIK

Alditu honen iritziz, garrantzitsua da gurasoek jakitea haurrak euskaraz ongi egiteko, hau da, eroso sentitzeko eta modu espontaneoan euskara erabiltzeko, haurrek aunitz aditu eta aritu behar dutela: "Haurrak eskolan hasita, familiak erabakimen handia du; txikitatik zer hizkuntzatan egiten diogun, zer eskolaz kanpoko ekintza egiten den... eta hori gurasoen erabakitzeko ahalmenetik pasatzen da.

Euskara Batzordetik azpimarratu dute hezkuntza hori nola egiten den kontziente izatea: "Haurrak ez dira jasotzaile pasiboak, eragile aktiboak dira. Horregatik egokiagoa da sozializazio hitza transmisio hitza baino. Transmisioak goitik beherako eta norabide bakarreko mugimendua irudikatzen du. Sozializazioak berriz hartu

emana, norabide anitzekoa eta aldakorra."

Hitzaldia Jauntsaratsen egin zuten eta euskaraz izan zen. Paulak adierazi digu guraso euskaldun bakarria duten familiendako ere erabilgarriak direla bertan aipatutako teknikak eta baita euskaraz hala moduan moldatzen direnentzako ere.

Argi izan behar dugu euskara ez dela hizkuntza normalizatua, eta beste hizkuntzekiko desabantaila dauka, hizkuntza handien erakarmena handia da, eta haurrak konturatzen dira horretaz. "Horren alboan", dio Paulak, "gurea den, ttipia den eta dibertigarria den hizkuntza bat dugula erakutsi behar diegu".

Guri dagokigunez erabilerarako hautu hori indartu edo la-

gundu ahal dugu. Nola?

-Haien eredu izaten (euskaraz egiten, haien aurrean bederen)
-Euskara une goxo eta dibertigarrietan erabiltzen, haiek euskara gozamenarekin lot dezaten.

Arduratzten gaituen gaia dela adierazten, baina errudun sentiarazi gabe.

-Gure bizitzetan euskarari lekua eginez

-Gure arteko harremanetan, eta ez badugu beti erabiltzen, ohi-turak aldatuz.

-Eskolaz kanpoko ekintzetan, euskaraz izatea ez da nahikoa. Begiraleak dinamizatzaile izan beharko lirakeke, kirola edo musika irakasteaz gain euskararen erabilerarako dinamizatzaile izan. Beraien zereginaz kontziente izan.

-Erreferente euskaldunak eskaini gure seme alabei: Pirritx, Porrotx eta Marimotots txikiak direnean, futbolari edo abeslari euskaldunak koxkortzen direnean...

-Euskarari erabilgarritasuna eman eguneroko bizitzan:


-Oharrak, erosketarako zerrenda, erantzungailuko mezua...

Laburbilduz, Paulak hau guztia metafora eder batekin azaldu zien bildutakoei:

Mendira igotzeko -bizitzarako-gure haurrek motxila bat baino gehiago izanen dute eskura. Hor-taz, euskararen motxila gauza beharrezko eta esanguratsuekin betetzen lagun diezaiegun (bizipen esanguratsuak, gozame-na, familiaren segurtasuna eta goxotasuna, abenturak, plazer-a, pertsonaiak...) , eta beraiek "euskararen motxila" hautatuko dute etorkizunean.

Bioenergia planta, berriro polemikaren erdian

Albisteak maiatzaren 17an ezagutu genuen komunikabideen bitartez. Dakizun bezala, Iraizotzen kokatua dagoen biogas planta zurrumbilo batean sartua dago duela urte batzuk. 2010. urtean "mundu osoan energia berriztagarrietan erreferente izateko" Miguel Sanzek inauguratu zuenetik, arazoak besterik ez ditu ekarri. Hasiera-hasieratik akatsez josia zegoen proiektua oraindik ondorioak ekartzen ari da. Azkenengo ondorioa: Nafarroako Kontseiluak Ultzamako udala plantaren erantzuletzat jotzea.



Erabaki hau dela-eta, AU taldeak ezohiko Osoko Bilkura bat eskatu zuen eta ekainaren lehenengo egunean egin zen. Agrupación Ultzamak Bilduren gaitzespena eskatzen zuen eta Bilduk, aldiz, jasotako herentzia kritikatu zuen. Bilkuran hika-mikak eta eztabaidak izan ziren. Pulunpe aldizkariak AU taldeari aurkeztutako testua eta datuak eskatu dizkio, baina erantzunik ez. Ultzamako EH Bilduk kritikatu zuen AUK aurkeztutako datuak plantaren hasierako garaietakoa izatea bakarrik eta haien jatorria ezezaguna eta pribatua izatea.

Urteak dira jada proiektu polemiko honekin hasi zene-

tik eta Bildutik kritikatu dute egoera honen sortzaile eta erantzuleek orain besteei erantzukizunak eskatzea. UP-Nren garai "megalomanoetan" sortua, diru publikoz hornitua (5 milioi euro), trakeski planteatutako proiektua, Levenger enpresaren partaidetza ilunarekin, makineria urriaz eraikia... Gaur egun proiektua pikutara joan da, hondamendi egoeran dago eta okerrean, eskualdeko abeltzainen lana egunero-egunero jarraitu behar...

Bukatzeko, Ultzamako Bildutik publiko egindako ondorioak azpimarratu nahi ditugu: "Aipatu nahi dugu Ultzamako Udalean erantzukizuna eta, aldi berean, BIOENERGIA enpresaren interesak zituzten pertsonak erantzuleak ere izan zirela beste batzuekin batera plantaren proiektzioan eta sustapenean, eta, jarduera ekonomiko horrek irabazi handiak ekarriko zizkiela pentsatuz, haren kudeaketa pribatizatu zutela (haiek baitziren enpresa kudeatzailearen partaide); eta, behin ikusita txiringitoak porrot egin behar zuela, sorturiko egoeraren erantzukizuna Ultzamako Udalaren gain uztea erabaki zuten. Gaur eta hemen norbait erantzukizuna eta gaitzespena eskatu behar bazaio, diru publikoarekin jokatu zuten horiei eta arazoak besterik ekarri ez dituen harria Udalaren bizkar uztea erabaki zuten horiei eskatu behar zaie".

Harrobia egin nahi dute Saldias aldean. Ze ondorio izango du gurean?



Pagoetako mendi eta pinadiak

Labaien eta Saldias lotzen dituen mugan, Pagoetan, harrobi bat ireki nahi dute. Proiektu honen aurrean kritikoak direnek diotenez, 40-70 kamioi inguru ibiliko dira egunero bueltaka errepide horretatik. Ibilgailuak batez ere Basaburua txikiko herrietatik (Urroz, Donamaria, Oiz eta Doneztebe) ibiliko dira; baina, harrobia egiteak Saldias eta Orokieta lotzen dituen errepidean ere bertako trafikoa handitzea ekar lezake.

Horretaz gain, "ingurumena hondatu, kutsadura arazoak eta osasun arazoak" ekarriko lituzke. "Hau dena gutxi ez balitz, istripu gehiago izateko aukera egongo litzateke denok baitakigu Saldiasetik Doneztebera doan errepidea oso estua dela", diote kritikoek.

Arrazoi hori dela-eta, sinadurak biltzen ari dira eta "denen laguntza eskertuko genuke, denon artean hau gelditzeko". Doneztebeko establezimendu batzuetan (mankomunitatean, udaletxean, osasun zentroan, fruta dendan, Suman eta Ameztian) sinadura orriak utzi dituzte. Sare sozialen bidez zabaldu duten idatzia bukatzen dute bertako jendea animatuz proiektu "txikitzaile" honen aurka sinatzeko.

Ingurumenarekin zer nolako harremana izan nahi dugun eguneroko lana da, baita zer proiekturen alde egiten dugun ere. Eskualdea zeharkatzen duen errepidean egunero badugu trafiko dentsitate aipagarri bat, eta kamioien kopurua ere kontuan izatekoa da. Adi egon beharko.

Zumarrori **agur**, rock doinu artean



www.ametza.eus webgunean duzu honen bideoa

Musikaren eta Rock & Roll-aren maitale sutsua zen Iraizozko Zumarro. Urtero hiruzpau kontzertu antolatzen zituen, bata ihotean, bestea festetan eta urtean beste kontzertu bat edo bi. Berak egiten zuenarekin omentzea

erabaki zuten bizilagunek, rock jaialdi eder batekin.

Zumarro hiltzean talde batek bere burua eskaini zuen kontzertu bat egiteko, omenaldirik onena zelakoan. Hone-la, herritarrak zer egin pentsatzen hasi ziren,

eta hasieran ekitaldi txikiren bat egiteko asmoa izan zuten, gertukoenen artean. Baina ikusita jende ugari gogoia zutela omenaldia eskaintzeko, herriko plazan egitea pentsatu zuten. Musika talde gehiagok ere jakin zuten omenaldi bat prestatzen ari zirela Iraizotzen eta bere burua eskaini zuten.

Talde batekin hasi ziren, baina azkenean lau izan ziren jo zuten taldeak: El desván, La Prima Yanis, No more Rulos eta Rokanrolaris, maila handiko lau talde. Azken honen emanaldia

bereziki hunkigarria izan zen, 20 urte ziren kontzerturik ematen ez zutela, eta Zumarro omentzeko elkartu egin ziren, tartean Iraizozko Bottorio musikaria.

Bazkalostean egin zizuten kontzertuak, eta bazkaria ere ez zen inolana hinkoa izan. Ia 250 lagun bildu ziren karpa azpian Jauntsarasko Apeztegi berriko neskek egindako bazkariak gozatzeko. Giroa ederra izan zen, eta jendearen jarrera ezin hobea, Iraizozko bizilagunek diotenez, laguntza ugari izan zuten uneoro.

Ostatuak itxi eta ireki

Zonaldeko ostatueta aldaketa ugari izaten ari da azkenaldi honetan. Azkenekoan, Orokieta ostatuak ireki izanaren berri eman genizuen, baina ez du gehiegi iraun irekita, eta itxita dago berriaz ere.

Itxi egin den bestea Lizasoko Deskarge izan da. Familia arazoengatik itxi behar izan dute, eta momentuz itxita egonen da beste norbaitek hartu arte. Esanguratsua da Beuntzako ostatuak ere itxi izana. Urte askoren ondoren ixtea erabaki dute, ez baitzuen errentagarritasunik ematen. Honela, Atezko bailara ostaturik gabe geratu da. Dena den, aurreko hilabetean genioen bezala, Aroztegin, Zigandako bidegurutze inguruan egin behar duten kanpinean ostatuak

egonen da, eta bailarako elkargune izan daitekeelakoan daude batzuk.

Basaburura itzuliz, Aizarozko ostatuak ere itxi egin dute. Orain arteko kudeatzaileek utzi, eta Basaburuko Udalak kudeatzaile berria izateko deia plazaratu zuen. Bitartean, berritze lan batzuk egin dituzte, eta ziurrekin Aizarozko bestetarako irekita egonen da jada. Pertsona bakarra aurkeztu zen berrikuntza lanak egiteko, eta bakarra ere ostatuak kudeatzen hasiteko datozen 5 urteetarako.

Eta, azkenik, Berueteako plazako ostatuak ireki berri dutela ere aipatzekoa da, Iruñea inguruko bikote bat sartu da kudeaketan, eta bazkari zein afari ugari izaten dituztela diote bizilagunek

Berdintasun **ikastaroak** zinegotzi eta batzordeetako partaideendako



Emagin elkarteko Miren Aranguren Basaburura hurbildu zen duela aste batzuk berdintasun ikastarotxo batzuk eskaintzeko: "oinarrizkoak" direla esan badigu ere, eduki eta planteamendu aldetik oso interesgarriak iruditu zaizkigu. Helburua, politikan "betaurreko moreak" erabiltzea, hau da, gure egunerokotasunean bizi ditugun berdintasun egoerak modu

kritikoan "ikustea". Ikastaro hauen hizpide nagusia berdintasun estrategietara hurbiltzeko saiakera egitea zen; lehenengo saioan, sexu genero sistemaren oinarriak zein diren azaldu zuten.

Berdintasun politikan gauzarik garrantzitsuenetarikoa "begirada fintzea" dela esan digu Miren Aranguren, errealitatea ikusteko eta aztertze berrirak izatea, "sistema

patriarkal eta kapitalistak ezartzen dituen berdintasun horiek ikusi ahal izateko". Eta horren harrigarria tresnak eskaintzea.

Emagin elkartetik azpimarratzen dute "ideologikoki kokatzea" garrantzitsua dela, teknikak izatea ongi dagoela, baina kokapen batekin, "askoz hobe".

Sexu-genero binomioa, espazio publiko eta pribatuaren arteko erlazioa, sexuaren arabera lan banaketa... kontzeptuak landu zituzten. Bigarren saioan, berdintasun politiken ibilbidea aztertuz, estrategia horiek nola eta zertan

aldatu diren ikusi zuten. Gaur egun martxan jartzen diren lau estrategiak nagusiak ere aztertu zituzten: ekintza positiboak, zeharlerotasuna, intersektionaltasuna eta ahaldundutza.

Azkeneko zati batean landu zuten parte-hartze soziopolitikoa bultzatzeko ahaldundutze estrategiak: "Materia asko badirudi ere, oinarri-oinarrizko kontuak dira eta Basaburuan benetan aplikatzeko ordu gehixeago beharko dira, baina tresna batzuk eskaini genituzten, eztabaida piztu zen... beraien kabuz lan txukuna egiten ari dira eta jarraitu behar dute bide horretan".

Leazkue, **kontzejua** galtzeko zorian

Herriek biztanleria galduz doaz, gehienetan gutxika-gutxika, eta adi-adi ez bazaude, zure begi aurrean desagertzen dira. Anueko Leazkueren kasuan kontzejua galtzeko prozesua hasi dute. Nafarroako Legeak dio Kontzejua izateko herri batek gutxienez 16 biztanle izan behar dituela eta herri honek nekez bete du.

Bertako biztanleak, halere, mugitu egin dira erroldan biztanleak lortzeko. Horrela, mantenduko dute Kontzejuen izaera. Herriko Alegazioak jarri dituzte eta administrazioak erantzun bat eman behar du, baina oraindik epaiaren zain daude. Haien alde, esan digutenez, Saragüeta herriaren aurrekaria dute. Kontzejua galtzeko prozesua hasi zen, jendeak izena ematea lortu zuten eta prozesua gelditu zen.

Leazkueri gertatzen zaiona testuinguruan jarrita, Mapa Lokalaren Erreformara eramaten gaitu.

Gogoratuko duzu, irakurle maitea, UPNren gobernuaren erreforma aurrera eramaten saiatu zela, kritikoei esaten zuten, "UPNren moduekin, inori ezer galdetu gabe", baina ez zuten arrakastarik izan. Oraingoek ere mapa horren moldaketa aldaketa egin nahi dute, baina oraindik bilerak egiten ari dira. Leazkuen horrela esan digute: "Ez dugu kontzejua desagertzea nahi, aurrekontuak aurrera ateratu ditugu, ez dugu zorrik eta auzolanean egin dituzte egin beharreko lanak".

Bukatzeko, Gobernuak herri txikiekin duen erlazioa kritikatu dute: "Ez diote etxe hutsei zergak jartzen, edota gazteendako planak sustatu, edota turismoa sustatzeko planak... ez dute ezer egiten."



Saien erasoei buruz

Maiatzaren erdialdean Nafarroako egunkarietan irakurri ahal izan genuen Eltson sai talde batek txahal bat hil eta behi bati eraso ziola. Albistearen gorputzean irakurri ahal ziren abeltzainaren kritikak eta baita Ingurumeneko en erantzunak ere. Hurrengo egunetan eskuin muturreko egunkari batek Nafarroako Gobernuari eraso zion "erantzunik ez" emateagatik.



Pulunpe aldizkaria hilabetekaria denez, gaiak patxadarekin hartzeko aukera ematen digu, guztiekin hitz egiteko. Eltsoko abeltzaina kexu da txahala eta behia galdu zituelako, lan egun bat galdu zituelako eta "esperoan egon behar garelako" ea Ingurumenetik konfirmatzen duten saien erasoak izan dela kalte-ordainak emateko.

Egoera konplexua da, alde batetik, gero eta sai gehiago dagoelako;izan ere, 1979 urtetik hona datuek 312 sai bikotetik 3591 bikotera pasa direla diote. Bestetik, eskualdeko basozain ba-

tek komentatu digu urte sasoi honetan ohikoa dela erasoak egotea behiak-eta umetzen ari baitira.

Gobernutik helarazitako datuek diote aurtengo erasoak beste urteen antzekoak direla. 2015. urteko datuen arabera, abeltzainen 21 eskaeretatik 15 onartu zituzten. Beste kontu bat da putreen erasotzeko modua: gobernuak dio oso arraroa dela bizirik dauden animaliak erasotzea (saiek jaten dutenaren %0,04 besterik ez dator bizirik dagoen beste animali batetik). Basaburuko basozainak esan digunez, saiek erasotzen

dituzten animaliak hiltzorian edo gaixo daude, edota Eltsoko abeltzainak dioen bezala, "ereditzen dagoen behi bat harrapatzen dute ahul-lunea probestuz". Basozainaren ustez, baliteke animalia horiek bizirik ez irautea.

Egoera gehiago nahasteko, bere garaian "behi eroen" gaitza zela-eta, saiak elikatze-ko "muladar" politika aldatu zen eta, orain hildako animaliak zelai berezietan uzten badira ere, abeltzainak esan digunez, "ez da kontu erraza". Galdetutako guztiek onartzen dute saiek ekosistemetan pa-per bat jokatzeko dutela.

Beste kontu bat da, jendea "nekatuta" dagoela egoera salatzeaz eta "horregatik eraso gutxi ezagutzen" direla esaten digu Eltsoko abeltzainak. Basozainak mahai gainean jarri du "betidanik salatze-ko egon den pikarokeria". Puntu honetan abeltzainak onartu du halakoak gertatu ahal direla, baina garrantzia eman dio kalte-ordain sistema oso konplexua dela konfirmatzeko.

Adar asko duen zuhaitza, zalantzarik gabe. Espero dugu Larraintzarko zelaitik pasatzen zarenean eta hamarnaka sai ikustean honi buruz pentsatzea.

Igerilekuen garaia bertan dugu!



E kaineren 13an irekiko dituzte igerilekuak aurtun. Lehenago irekitzekoak ziren, baina asteburu horretan ekitaldi ugari daudenez (Larraintzarko ikastetxearen 50. urteurrena, Anueko krossa, mamia-ren eguna...), astelehene-ra atzeratzea erabaki zuten, eta eguraldia lagun badugu 13tik aurrera igerilekuaz gozatzeko aukera izanen dugu.

Eta, irekitzearekin ba-

tera, uda osoan bertan ariko diren langile berriak ere izanen ditugu, Javi Ramos eta Mikel Larraioz sorosleak, Mikel San Martin zerbitzu anitzetako langilea, Olga Juankorena garbitzailea eta Leire Etxeberria eta Paula Elizondo tabernariak. Eta, azkenik, igeriketa monitorearen postua hutsik zegoen erredakzioa hertsu genuenean, baina igerilekuak irekitzean postua bete-egonen da.

Joko olinpikoak eskolan



D eguna" iritsi zen Basaburuko Oihanzabal ikastetxera. Gurasoen inplikazioa eskatzen duen eguna da hau, eta aurreko urteetan bezala, aurtun ere egun ederra antolatu zuten.

Ikasturtea amaitzen ari den honetan, liburuak alde batera utzi eta gozatzeko aukera izan zuten. Maiatzaren 27a izan zen egun handia, baina 26an Edorta de Anta kirolaria-ekin hitzaldia izan zuten. Arraun, eskalada eta padel egokitua egiten duen kirolari bikaina da bera, eta hankak falta dituen arren kirol maila horretara nola iritsi zen azaldu zuten.

Hurrengo eguna joko olinpikoena izan zen. Zor-

tzi taldetan banatuta, beste zortzi proba gainditu behar izan zituzten: arkua, atletismoa, errugbia, masajea, kirol egokitua, oreka, kooperazio jokoak eta prentsa aretoa. Azken honetan egon ginen Esan Erran irratiko kazetariok kirola-riei galdera ugari eginez. Gainera, 4 orduko zuzeneko irratsaioa egin genuen Oihanzabal ikastetxetik haur, irakasle zein gurasoen hitzak jasoz.

Antolaketa bikaina izan zuen egunak, gurasoen inplikazioari zein ikastetxe-ko irakasleei esker. Beraz, haiek zoriondu beharrean gaude, eta nola ez, baita ikasleek izan zuten jarrera ezin hobea azpimarratzea!

Iritzia

Zurubi luzea



Anjel Lertxundi
BERRIA egunkarian

Nire belaunaldiko euskaldunok galarazitako hizkuntza batean entzun genituen lehen hitzak, galarazitako hizkuntza batean hasi ginen hizketan. Halaxe egin zuten bizi osoa, hizkuntza debekatu batean, gurasoek. Haien gurasoek ere halaxe; eta haienek, memoria iristen zaigunerainoko zurubian gora (bela beltzak kua-kua leihoe-

tan). Gure oroimen kolektiboa debekuaren historia luze batez mintzo zaigu, baina gaur kontu zaharrak irudituko zaizkio hainbat bertangoxori. Ez dira, ez Nafarroan edo Iparraldean soilik. Ezta EAEn ere: hizkuntzaren gaurko paradoera datorren garaitik dator, mendeetako debekuaren zauriak dauzka gorputzean, zauri sako-

nak dauzka psikologian eta ariman ere. Bereziki hor: psikologian; ariman.

Ez dakit deus psikiatria sozialaz, baina norbaitek aztertu beharko luke gure hiztun jardunaren e-estruktura mentala, zergatik garen hain otz-na-ak, barkaberrak, utziak, baldar zabarrak, zergatik garen hain meneko eta mendeko.



Aurtengo jaioberriak eta haien gurasoak Aizarotzen Haurraren egunean

Errugbia, une **gorenean** gurean

Baliteke jendea asperturik egotea beti futbola edota pilota telebistan ikusteaz eta zer edo zer desberdina bilatzea. Errugbia balore desberdinak dituen kirola dugu eta joko garbia, laguntasuna eta talde lana sustatzen ditu. Gure eskualdean jende askok praktikatzeko du eta hurrengo argazki eta testuen bidez aurtengo urteak ekarri duenari gainbegiratu emango diogu, batez ere BRT taldeari begira, baina beste ikuspegiak ahaztu gabe.

BRT TALDEAREN DENBORALDIAREN LABURPENA



Orain Euskadi mailako lehen mailan jokatzen dute, bertan zortzi talde daude, gehienak antzeko maila dutenak. BRT Menditarak taldearentzat oso ongi joan zen urte hasiera, ligan bigarrenak gelditu ziren eta, gainera, datu garrantzitsua, etxean partidu guztiak irabazi zituzten. Ondoren ligaren igoera fasea izan zen eta bertan ezin izan zuten emaitza onik atera, "laugarren postuarekin konformatu behar izan ginen. Hala ere kontent lortu-tako emaitzarekin, gure helburua maila mantentzea da eta, azken bi urteetan jokalarien adina asko gatzetzea lortu dugu eta".

GAUPASAREN BALORAZIOA



Lehenbiziko gauza talde guztiaren partetik eskerak eman nahi dizkiegu gaupasara hurbildu zirenen guztiei bai trago bat hartzera bai laguntzera modu batean edo bestean. Gure balorazioa bikaina izan delakoan gaude, jende asko etorri zen eta giro paregabea sortu zen".

Mexikanekin hasi ziren 20:30ean eta goizeko 9etan amaitu zen parranda. Laguntza behar zenez, deialdia egin zuten txartelak motel saltzen ari zirelako eta erantzuna nabaritu zen azken orduan guztiak saldu baitziren, "benetan eskerrak guztioi". Gaupasari esker taldea eta errugbi eskolak ekonomikoki beste urte batez mantentzea lortuko dute.

TALDEAREN HISTORIA



Ultzama aldetik, gaur egun, 8 jokalaririk joaten dira jokatzerara (Iñaki Ezkurra, Mikel Eugi, Julen Anzizu, Josetxo Barberena, Iñaki Iraizoz, Oskar Villabona, Julen Lintzoain eta Ruben Ozkariz).

Baztan errugbi taldea 1978an sortu zen. Hainbat urtez desagertua egon ondoren, 2001. urtean berriz taldea berreskuratzea lortu zuten, garai horretan ultzama aldekoak jokoan sartu ziren. Ultzaman herri kirol taldea zegoen eta bi kirol hauek lotura dutenez, neguan kirola egiteko errugbian hasi ziren.

Taldea indartsua osatzea lortu zuten eta urtetik urtera mailaz igotzea ere. 2005. urtean Espainako bigarren mailara igotzeko igoera fasea jokatu zuten, nahiz eta igotzea ez lortu, taldeko lorpenik handiena izan zen. 2013. urtean estatu mailan errugbiaren kategoriak moldatu zituzten eta nazional maila (hirugarren maila izandakoa) kendu zuten, BRT bertan jokatu zituen urte asko. Ondorioz Euskadi mailan jokatzen dugu, bertan hiru maila daude eta momentuz lehenengo mailan daude.



Gaur egun ostiralero arratsaldeko 4etan Larraintzarren errugbi eskola egiten dute, aurtengo zonaldeko 12 haur daude, entrenatzailea Eltzaburuko Maika Iraizoz dugu. Urtean, hilabetean behin beste eskolakoekin haur topaketak egiten dira, non partidutxo batzuk jokatzen duten, eta gero hirugarren denbora izaten dute kirol honetan ohitura denez. BRT guztiari dagokionez haur mailetan azpi10, azpi12, azpi14 eta azpi 18ko taldeak dauzka, osotara 62 haur, helburua talde kirola egitea, ongi pasatzea eta kirol hau ezagutzea.

LA UNIKA TALDEAK, SEKULAKO URTEA



BRT taldekoek aipatu nahi dute hainbat urtetan taldeko kapitaina izan dena, Urritzolako Iñaki Ezkurra zelaia utziko duela, orain taldeko beste lanetara dedikatuko da, urte askotan ikasitakoa orain entrenatzaile moduan besteei erakusteko aukera izango du. Ezkurra urte askotan errugbi jokalaria izan da, aipatzekoa Espainiako lehen mailan jokatu duela Ordizia taldearekin baita ere Euskadi selekzioan.

La Unikako neskek inoiz baino denboraldi hobea egin zuten, "ezin hobea", eta apirillean Valladoliden jokatu zen igoera fasean laugarren geratu ziren. Taldeko jokalaririk batek kontatzen zigun ligan ez zutela partida bakarrik galdu eta oso tanto gutxi jaso dituztela kontrari. Horretaz gain, aurtengo sortu berri den Amaier Kopa irabazi dute: "Ezin daiteke gehiago eskatu".

Talde horretan eskualdeko hamar bat neska parte hartzen dute. Txutxumutxu bezala esatea azkeneko astetan autoak moztzen dituzten herri kirolan ikusi zaiela, autotari buelta ematen. Bejondeiela!

BASABURUA ERE, ERRUGBIAREN ALDE



Kirol honek eskualdean duen zaletasuna gora doa eta horren adibide Basaburuko Oihanzabal eskolan gertatutakoa: "D eguna ospatu zuten eta gaia Olinpiadak izan ziren. Prestatu zituzten guneen artean, bat errugbia zen, bertan ikasleek kirol hau praktikatu ahal izan zuten gurasoen laguntzaz. Bestetik Basaburuko Egunean errugbiari tarte eskaintzea ere aurreikusi dute.



Etxalekuko elizak 140 urte

Gaur Etxalekuko eliza handiaz zenbait gauzatxo kontatuko ditugu, aurren betetzen baititu 140 urte inauguratu zutela. Handia, izugarri handia egin zuten eliza, alderdi honetan oso gutxi dira tamaina honetakoak. Parroko, Pedro Juan Erbiti Ziganda zegoen, Alkozko **Martixeneko** semea. Hau izan zen obrak aurrera ateratzen lan ikaragarria egin zuena. Lana eta dirua, denetatik jarri behar izan zuen elizako obrei bukaera emateko.



Eliza berria egiteko lanak ezin hasi.

Aspaldian Etxalekuko eliza suntsitua zegoen eta elizkizunak San Pedro Ermitan izaten ziren, orduko etxalekuarrendako oso ttikia. Aspalditik zebiltzan hauek eliza berria altxatu nahian baina ezinean, lehen gerra karlistak (1833-1839) utzi zuen miseriari ezin jauzi egin, ezin ihes egin inola ere, ezin utzi pobrezia behingoz, eta beti luzamendutan zebiltzan.

Eliza nahi-eta eginahalean ibiliak ziren, planoak egin, lehen aurrekontua, bigarrena... baina lanak hasten ez. Lehenbiziko aurrekontuak 1854. eta 1860. urtekoak dira.

1867: Lanen hastera. Berriz ere huts

Don Pedro Juan Erbiti 1865. urtean etorri zen apez. Etorri orduko, hasi zen eliza egin beharretan. Etorri eta urte pasatxora, 1866. urtean, Artaxoako lan-maisu bati agindu zion planoak egiteko; planoak eta aurrekontua.

1867. urtean adreilu eta teila pila egin arazi zuten herriko teilegian, baina eliza altxatzen ez ziren hasi. Lanak hasi, baina pott! Zer gertatu zen?

1872: Lanen hasiera. Noizbait!

Nolanahi gisa, beste sei urte luze zain egon behar. Berriz ere atzerapenak, eta planoak eta aurrekontuak aldatu behar.

1872. urtean, berriz ere, aurrekontuak egin beharra!

Eta oraingoan bai, oraingoan gauza ondua zegoen: Artzapezpikutzatik baimenak erdietsi, eta erositako lurak zelaitu eta... hasiera eman zitzaion. Noizbait!

Lanak subastan atera zituen parrokiak eta hartzaileak honako hauek izan ziren: Hargin lanetarako, Bautista Urtea Etxarri eta Javier Arrizurieta Gorostiaga, lekunberriarrak; Zurgintzarako, Bautista Buldain Martinikorena, errazkindarra, eta kisuskil lanetarako, Agustin Goñi Larunbe, auzarra.

Eta bukatzeko eguna ere jarri zitzaion. Lanak, guztiak, hargin, zurgin eta kisuskil lanak, 1873ko martxoaren 22an bukatuak behar zituzten. Urtebete besterik ez, lan guztiei akabera emateko! Tokitara joanen zen dena!

Herriak dirurik ez.

Obrak egiteko Parrokiak 56.000 erreale zituen aurreztuak. Dena dela, bukatzerako hiru aldiz gehiago gastatu zuten.

Elizako obren pagamenez, Joxe Anjel Astitzi galdetu eta hona zer kontatu zidan:

-Holako elize haundie itteko diru asko biarko zuten, ez?

-Batez. Zorretan in yun dena, San Mioldik-eta dirue ekarrita, pixkeka-pixkeka.

-San Mioldik ekartzen zun dirue?

-San Mioldik, bai, eta beste leku askotatik. Eskian ibiltzen yun. Majiñat lekuta joan yun bai! Parrokik eta kontzejuk eta, denak ibilliko zittin!

-Herrik etzun diruik jarri!

-Nik uste ezetz, lana. Lana auzelanian, harrik ekartzia auzelanian ta.

Egia ederra bota diguna Joxe Angelek, pixkeka-pixkeka egin zutela. Horixe hala egin zutela! Hogeita bederatzi urte joanen ziren lan guztiak bukatzerako.



Lanak hasi eta ezuste galanta: gerra.

Lanak hasi baino lehen, hala ere, ezuste handia hartu zuten etxalekuarrek. Frantziako aldean gerra prestatzen ari zen karlista taldea Beratik sartu maiatzaren 2an eta aurrera egin zuen. Carlos VII.a karlisten errege, buru, Orokietaraino iritsi zen, bidean gero eta mutil gehiago batzen zitzaio-larik. Elizako lanak hasi behar eta gerra bat ez zen batere lagungarri.

Nolanahi dela, Orokietan, Gobernuko tropek kontra egin eta xehatu zuten karlista tropa guztia. Bakea nagusituko zela zirudien, eta momentuz hala izan zen. Hori 1872ko maiatzaren 5a zen. Gauza, ustez bareturik, lanari ekin zioten urtearen bigarren zatian. Karraskan hasi ziren Lekunberriko harginak. Eta hauendako harria ekarri eta kaltzina egin behar. Harria ekartzen eta kaltzina egiten herritarrek aritu ziren. Hori bai, soldatapean.

Eta abenduaren 21ean, berriz ere karlistak sartu ziren Dantxarinetik. Oraingoan Nicolas Ollo brigadierraren gidaritzapean; 27 lagun besterik ez ziren, baina izua barratu zen bazterretan. Lanak, urtea amaitzearekin batean, gelditu zituzten... gerraren izua, negua, dena batera etorri zen. Baina hurrengo maiatzean, berriz ere, erakitze lanekin segitu zuten, bukatu beharra zegoen eta.

Pago zarakak zimendutako.

Tikitant entzun izan diogu bati baino gehiagori harrapatzeko ez, eta nola pago zarakak sartu

behar izan zituzten zimenduetan, gero hauen gainetik paretak egiten hasteko. Ezkildorreko beheko paretak jotzen zuten pago gainean zegoela egina, baina 2003an edo, Joxe Anjel Astitzekin egindako hitz aspertu batean zera esan zidan:

-Ez, hoi ez duk hola, Sakristi parian yun zimenduik harpatzen e'ztutena. Segurtasun guztia eman nion Joxe Anjeli, beste kontu askotan ere bere jakintza eta memoria aparta frogatu izan baitzizkidan.

Eta kontu hau bukatzeko, hala esan zidan:

-Sano zaudek bai goa'nik!

Arrazoi ederra, paretak ez dute mugimendurik ezagun. Zeuden zeudenean daude oraindik.

Etxalekun harria nonahi, harria usu.

Elizako paretetan ageri diren harri ikaragarriak nondik eta nola ekarri ote zituzten eta horrela galdetu nion Joxe Anjeli:

-Eta harri zar hoiek nondik ekartzen ote zittuten?

-Harrie!! Hemendik, *Oyanberri* gañek'aldian'e ba'uk. *Mugetakotxokitik* eta. *Oyanberriko* bide'hortan ta. Nonahi baziok harrie motel!

-Biño, harri zar hoiek?

-Bai, bai, ba'ttuk, ba'ttuk!

Bai, Etxalekun harria nonahi da, lur beltz gozoa baino gehiago! Harria bazen Etxalekun, dirua zen falta zena; beharrik, Don Pedrok irabazi sos guztiak hemen bota zituen!

OHARRA: Uste denaren kontra, auzelan gehienak ordaindutakoak ziren. Eta eskean ere, egia esatekotan, ez zen deus bildu.

HIZTEGIA

SUNTSITUA: Desegina.

JAUI: Salto

AURREKONTUA: Presupuesto

ARTZAPEZPIKUTZA: Arzobispado

AURREZTU: Ahorrar

BARETU: Tranquilizarse

ERAIKI: Construir

HARMALA: Harri sendoa.



“Ez gara musikariak, baina giro polita sortzen dugu”

Apeztegiberrin kafetxoa hartu dugu talde basaburuar honen kide den Josu Jauregirekin. Giro hurbil horretan kontatu diugu udarako plana; aurren, erabaki dute publiko heldura hurbiltzea. Gau partean entzun nahi badituzu lasai, hori ere posiblea da-eta.



Uda badator eta taldeak aldaketak planteatu ditu, zer diozu?

Bai, aurtengo udara begira erabaki dugu hurbil jotzea: Atetz, Imotz, Basaburua, Leitza aldean... arazoak ditugu bestela; umeak eta halakoak, badakizu. Ezin dugu Donostiara joan, adibidez. Arratsalde giroko kontzertuak eskaini nahi ditugu, bazkalostekoak, dantzaldiak... jabetu gara jende gazteak ez dituela hain gustuko rantxera “klasikoak”...

Eta horretarako aldatu edo moldatu duzue erreperitorioa?

Badugu erreperitorio luzea, ez pentsa; 43 abesti ditugu, eta aukeratzen ditugu dagoen giroaren arabera: bazkalorduan jotzen badugu eta helduen aurrean bagaude, ba, rantxera klasikoak joko ditugu, bestela, gau partean, “narcocorridoak” eta halakoak, dantzatzeko dauden abestiak.

Zer dela-eta hartu duzue erabaki hori?

Esperientzia eta bizitzaren kontuak... Adibidez, lehenengo urtean Urritzan jo genuen bazkari baten ondoren eta sekulakoa izan zen: jende heldua etorri zen aulkia eta guzti eta oso gustura egon ginen.

Bestelako batean, Gartzaronen, nik uste, gau aldean jo genuen talde gazte baten aurretik eta

gogorragoa izan zen, jende gaztea gu bukatze-ko itxoiten zegoen... Ez dakit zehazki zer arrazoi dela medio, baliteke modaz pasatuta egotea edo.. karkar... Gure planteamendua da gauean bada, ba, leku itxi batean jotzea: taberna edo elkarte batean, adibidez.

Kontatuko diguzu zuen historia pixka bat, taldearen hastapenak...

Tinto eta biok elkartu ginen arratsalde batean gitarra jotzera eta abesteko pixka bat... Esan genion elkarri: “aukeratuko ditugu 10-15 abesti jaietan eta halakoetan jotzeko, handik eta hemendik ibiltzeko...” Kontua da jendearekin elkartzen hasi ginela: tronpeta, saxofoia eta beste abeslariarekin eta nolabait taldearen oinarria jaio zen. Aizarozko jaietan, 2011n eskaini genuen gure lehen kontzertua eta arrakasta handiaren ondoren erabaki genuen jarraitzea.

Hurrengo urtean beste ikuskizun bat prestatu genuen “Runbakortxo” abestiak eta jantziak prestatu genituen gai “runberoarekin”... Egun horretan 11 pertsonako taldea osatu genuen! Oso polita geratu zen. Hurrengo urtean “Kubakortxo” taldea egin genuen kubatar giroarekin, baina beti Mexikortxo mantenduz. Halere, denboraren poderioz erabaki genuen banda eta estilo finkoa mantentzea. Laburbilduz, ez gara musikariak, baina giro polita sortzen dugu.

Agurrak, diosalak eta olesak (6)



Gaurkoan Ultzamara joan gara gizon prestu baten bila. Hona hemen Joxe Miel Oiartzun Balda, Alkozko Pinttonekoa. Xaloa, jolastuna eta bizitorea. Honek lehenbiziko hitzetik hartuko zaitu ongi, aurpegi alairekin. Diosalik egin gabe ez da pasako zure ondotik. Orain bezala bizi dadin, beste laurogei urte opa diogu.

Nonbaitetik hasi behar eta errazenetik hasiko gara: *Egun on! Arratsalde on! eta Gau on! Arratsalde on!* hori hemen, gure alderdian, eta Iparralde guztian *Atsalde on!* izaten da. *Eta Gau on!* hori ere *Gabon!* ibiltzen dugu. Eta ez nahasi Gabonak delakoarekin, hemen Eguberriak esaten baita. Lotarakoan *Ongi lo egin (ongi lo in)* edo *In lo* erranen dugu. Jaikitzerakoan, berriz, *In da lo?*

Despedida kontu bat ere ez nuke bazterrean utzi nahi: Erdarazko *Adios!* hori *Adio!* erabiltzen dugu, baina gizonen artean soilik. Emakumea bada *Adios* esanen diogu. Gaur, alderdi honetan ere, *Aio* erabiltzen hasi da jendea kasu guztietan. Eta ez dakit zergatik. Eta ni ez bainaiz berritzailea...

Eta Eguberriak aipatu ditugunez, garaian garaikoak hona ekartzea ez dago batere gaizki: Eguberrian, *Eguberri on!* edo *Eguerri on!* Urte berri egunean edo ondorengoetan, *Urteberri on!* Beste egoera batzuetan: Norbait familiakoaren hiltzen bazaio, *Osasuna enkomendatzeko* ibiltzen da. Baina nola da kontu hau? Norbait hil eta osasuna aipatzea? Kosta zitzaidan niri entendatzea; ea zuk, ez badakizu, nik baino hitz gutxiagorekin entendatzen duzun! *Osasuna enkomendatzeko* eta erdarazko *Salud para*

encomendar, biak bat bera dira. Euskarazkoa erdarazkoaren kalkoa. Eta agur honetan zera esan nahi dugu: Nik zuri osasuna opa dizut hila Jainkoari enkomendatzeko beta izan dezazun. Bai, bai, hori dena esan nahi du; esaldi luze hori bi hitzetara mugatua. Ez dago batera gaizki, ez horixe!

Orain erdarazkoa atzentze bidean dago. Eta euskarazkoa ere hortxe, hortxe!

Orain, beharbada, jasoagoak, kultoagoak ere ibiltzen dituzte zenbaitzuk. Hona hemen bizpahiru: *Atsekabeen lagun! Samiñean lagun! Nire doluminik sentikorrenak!*

Eta Elizan, bakea ematerakoan, *Bakea zurekin!* Norbaitendako gure partez agurra ematerakoan, honela esaten dugu: *Goraintzi! (Atharratze Jauregian, kantu ederrean ageri da, “Iparr baldin bada, goraintzi Salari...”)*

Nire ustez jatorragoa da *Goraintzi* esatea *Goraintziak* baino, nahiz gure alderdian azken hau oso hedatua dagoen: *Goaintzik Joxe Jabierri!*

Gabon eta bonbon, eta besterik gabe, *goraintzi eta eskumuinak* Ultzamaldeko adiskide guztiei. Ardo frexkoarekin topa egingen dut gaurkoan zuen osagarri.

Bakea eta osasuna! Izan ontsa!

HIZTEGIA:

EGUBERRI: Eguberri bezpera, Eguberri biharamuna

URTEBERRI: Urteberri bezpera, Urtezahar gaua, Urteberri biharamuna...



Azpiegiturak mendialdean, eskubide guztiak al ditugu?

Neguko edo udaberriko egun gris horietako bat da, leihotik begira ari gara. Telefonoz hitz egin nahian, deia moztzen da. Interneta erabili nahi, eta oso motel doa. “Tira, liburu bat irakurriko dut, behintzat”. Plaf! argindarra joan da. Halakoak askotan gertatzen dira gurean: argindar, telekomunikazio, telefono estaldura, errepide arazoak... batzuetan badirudi mendialdean bizitzeak eskubide gutxiago izatea dakarrela.

Mahai gainean aspalditik dagoen kontua dugu azpiegitura faltarena. Azken hilabete honetan Aizarozko Bizilagunen Elkartekoek gutuna argitaratu zuten komunikabide desberdinetan, gaia berriz eguneratzeko asmoz.

Gutunean azaldu zuten urteak daramatzate-la egoera honetan, “telefono enpresei deitzeaz” nekatuta. “Zerbitzua ez dute hobetzen hitz eman diguten bezala, argi dago buruan duten gauza bakarra errentagarritasuna eta diru irabaziak direla. Horregatik, uste dugu, telekomunikazio aferra hau zerbitzu gisa ikusiko dutelakoan, batzuetan lana eduki ahal izateko ezinbesteko baldintza den heinean, gure hurbileko erakundeengana zuzendu behar garela. Arabako, Gipuzkoako, Bizkaiko eta Nafarroako gobernuei eskatu nahi diegu telekomunikazioak nazionaliza ditzatela, edo sortu ditzatela legeak, beste herrialde batzuetan (Frantzia, Finlandia..) dituzten zerbitzuak eta kostuak hemen ere eskaini ahal izateko”.

Gutuna bukatzeko Basaburuko Udala kudeatzen duten pertsoneri ere eskatzen diete “gure ahotsa entzun eta norabide honetan indarra” egin dezatela.

Esan digutenez, Basaburuko Udala gai hauek lantzen ari da, bi modu paralelotan: alde batetik Komunikazio batzordearen lanarekin eta bestetik Kontzejuen bileretan. Komunikazio batzordeak kanpora eta barrura begira lan egiten du, eta horren barruan aztertzen ari dira azpiegitura aldetik nola bermatu eskubide hori basaburuar guztien-dako. Pulunpe aldizkariak jakin izan duenez, 2010. urte aldera ikerketa batzuk egin ziren bailaran internet konexio duina izateko, baina bertan geratu zen kontua. Badakigu, beste aldetik, mugimendu praktikoak egiten ari direla batzorde honetan, baina bere momentuan zehaztuko dira.

Kontzejuen bileran, Gartzarongo herria izan zen haien kasua azaldu zuena: herri horrek duen kokapen geografikoa dela-eta, mota guztietako telekomunikazio arazoak dituzte. Gogora dezagun bere garaian Basaburuan hedatutako “Iberbanda” proiektua. Itsasoraino besterik ez dela ailegatzen. Udalak testigua hartu eta kasu guztiak batera hartuta lanean jarri zela esan digute.

Enpresa handiei erreparatuz gero, argi dago ez dutela interesik inbertsioak egiteko merkatu txikia baita. Enfokea, beraz, ekimen propioez gain, eskubideen arloan jarri behar da. Nafarroako Gobernuarekin kontaktuan jarri zirela esan digute udaletik eta bertakoek azaldu zieten bere garaian UPNren gobernuak zuntza herri txiki-tara hurbiltzeko proiektua zuela, baina bertan behera geratu zela krisi ekonomikoa gogor jotzen hasi zenean. Gauzak horrela, proiektu hori berpizteko gogoa dago, baina indarra batera egitea gomendagarria dela argi dago.

Basaburuan, Ultzaman, mendialdean, eta zergatik ez, herri txiki-tako biztanle guztiok beste herri edo hiritarrek adina eskubide dugu eta horren alde egin behar dugu. Badakigu, argi jakin ere, bizitza honetan, ez baduzu ozen esaten, inork ez duela arreta zu zauden lekuan jarriko.



Gureak dira oihanak (2)



Eusebio Ezkurra eta Joxe Mari Jaunarena, Erbitiko Palazioko atarian, Oihanetako Batzordeko kideak. Hemen Santiago ez zaigu ageri. Ea hurrengoan Santiago Etxeberriaren fotografia hona ekartzen dugun.

Joan den urtean ekarri genuen hona zer gertatu den Gartzarongo Aizalorko haritz monumentalarekin, gupidarik gabe soildu baitzuten inor ohartu gabe. Nik galdetuko nuke Orokieta eta Erbitiko dermioan egon izan balitz gertatuko ote zen hau. Ez dakit, Jainkoak jakin; nik dakidan gauza bakarra da, Orokieta-Erbitiko herrian oihana ongi zaintzen dutela. Garai batean izan ziren abusuak, aspaldi, baina joan den berrogeita hamar urtean ongi zaintzen dute oihana. Oihana zaintzeko kultura dagoen herria da hau.

Zerbait jakin asmoz, Orokieta joan gara eta Apezeneko bordako nagusia den Santiago Etxeberriarekin egon gara, aspaldian herrian alkate dagoena. Denetatik mintzatu gara, baina batez ere oihanetako kontuez. Elkarrieketa horretako zenbait zati ekarriko ditugu Pulunpera.

-Santiago, oihanaren zaintzeaz ari izan gaituk jolasean. Nola administratzen duzue?

HIZTEGIA
DERMIO: TERMINO, EREMUA.
SOILDU: ARBOLA EDO LANDAREA HOSTOZ
EDO ADARREZ GABETU.

-Guk, herri koskor guzietan bezala, kontzejuko junta diagu. Bost lagun gaituk, baina horretaz kanpo badiagu Oihanetarako Batzorde bat izendatua, hiru lagunekoa. Batzorde horretan bat juntakoa duk, ni, eta gero, bertze bi lagun dituk, Eusebio Eugi Apezenekoa eta Joxe Mari Jaunarena, Erbitiko Palaziokoa. Gu hiruok ibiltzen gaituk oihanetako edozein zeregin dela eta. Eta izaten duk lan puxka.

Batzorde honek baditu bere egitekoak, bete-beharreko lanak, oihana behar bezala kudeatzeko. Bertze zein herritan dago oihan kontuetarako batzorderik? Noren eskutan daude gure oihanak? Zenbait herritan inork ez du kasurik ere egiten, eta hortik kalte handiak etortzen dira.

Gaurkoz ez dugu gehiago luzatu nahi. Hurrengoan emanen diogu elkarrieketa eta komentario hauei segida.
TXURDAN

JOLASTU: HITZ EGIN, MINTZATU (SOLASTU)
BATZORDE: COMISIÓN
KUDEATU: ADMINISTRATU, GESTIONATU.
KIDE: MULTZO BATEKO PERTSONA BAKOITZA

Santurbe **erromeria** aire berrituekin



Joan zen hilabete egin zuten Santurbe baselizaren inaugurazio ekitaldia, eta jada lehenengo erromeria egin dute baseliza berriarekin. Maiatzaren 29an, hilabetearen azken igandean bertaratu ziren Odieta, Atetz, Xulapain zein inguru etako bizilagunak festa egunaz gozatzeko.

Berezia izan zen aurtengoa, ez baitzen soilik meza izan baselizaren barrenean, kontzertua ere izan zen. Meza amaitu eta aldarean dagoen panela jarri zuten ekitaldi erlijiosoei kulturek lekukoa hartzen ziotenaren seinale gisa. Urtero bezala hainbat bazkari ere egin zituzten baseliza inguruko maldetan.

Orain, ordea, baseliza ez da hutsik egonen heldu den urteko erromeria iritsi arte. Proiektu berria martxan dute jada, eta ekitaldiz beteriko egitaraua ere bai. "Santurbe, ilargi beteari kantuz" deitu dute ekimena, ezagutu dezagun hobeki:

Zergatik sortu da ekimena? Baselizaren zaharberritze asmoetatik dator, Santurbek duen bailarako bizilagunen elkargune izaera indartzeko.

Nola lortuko dute hori? Erabilera tradizionalak man tenduz, baina erabilera kultural berriak ere emanaz

Zein elementu dira garrantzitsuak Santurben? Baselizaren patrimonioa, lekuari izaera berezia ematen dion ingurune ederra eta inguruko herrietako jendea eta haien bizipenak bertan.

Nola batuko dira elementu horiek guztiak? Musikaren bidez pertsonak eta natura batuko dituzte Santurben.

Zein da proiektua? Bi ardatz izanen ditu, ekitaldi musikalen programazioa eta ikastetxe zein prestakuntza zentroekin eginiko programa pedagogikoak.

Nori zuzendua da proposamen hau? Edozeini zuzendua! Odieta bizilagun guztiendako ekin-tzak antolatu nahi dituzte, horregatik antolaketan

parte hartzea oso garrantzitsutzat jotzen dute.

Nola antolatuko dute hau guztiau? Bailarako herri guztiak ordezkaturik dauden batzorde bat egonen da, eta horren informazioa biztanle guztiei zabalduko zaie.

EGITARAUA

- **Ekaineko ilargi betea:** ekainak 17, ostirala 18:30-21:00 (Mankomunitateko ostiral kulturalen baitan): "Naturara gerturatzen diren pertsonak": Bertako dantzarien ikuskizuna kanpoko haritzetan eta Amati abesbatzaren emanaldia baseliza barnean.

- **Uztailako ilargi betea:** uztailak 24, igandea 12:00-22:00: "Bertako doinuak": Egun osoko omenaldia bertako kultura eta Odieta herrien bizimoduari: argazki erakusketa, proiektzioak, lanbide tradizionalen erakusketa, txalaparta, bertsolariak...

- **Abuztuko ilargi betea:** abuztuak 21, igandea 18:30-22:00: "Musika aniztasuna": Baseliza barnean zein kanpoan kontzertu akustikoak egingen dira: Lehiotikan, Beltxaren (Ana Telletxea eta Lina Anduela), eta beste talde bat

- **Irailako ilargi betea:** irailak 9, ostirala 18:30-22:00 (Mankomunitateko ostiral kulturalen baitan): "Astronomia eta musika behaketa": Girgillanoko behatokiko kideek emandako hitzaldia eta haiek ekarriko dituzten teleskopioekin behaketa, kantu harmonikoarekin girotuta.

- **Urriko ilargi betea:** urriak 14, ostirala 9:30-15:00: "Natura entzun": Larraintzarko ikastetxeko ikasleak bertaratuko dira naturaren magia eta gure usadioak ikastera.

Atetzen AEKrekin **euskalduntzen**

Datorren ikasturterako aurrematrikula kanpaina abian da, eta izena orain emanda deskontuak daude matrikularen ordainketan. Ekainaren 19ra arte daukazu izena emateko epea AEKko edozein euskaltegitan (Iruñean Donibane auzoan dago, Errekoleten kalearen 16. zenbakian).

Hiru urte daramatza Atezko AEKn helduen euskalduntzerako taldeak. Batzuk hasieratik, beste batzuk geroago hasi dira euskara ikasten, eta giro ezin hobearrekin hartu gaituzte Atezko udaletxeko bigarren solairuko gelatxoan, Eritzen.

Irakaslea Mikel Olza aizaroztarra da, eta ikasleak Pilartxo, Jose, Fermin, Pablo, Javier eta Mertxe. Haiekin hitz egin dugu (batzuek besteek baino gehiago hitz egiten dute, ez dakit euskara mailagatik den edo batzuk oso hitzunik direlako) eta hauek dira haiek esandako hainbat kontu

FERMIN, GASKUEKOA

"Nik hiru ikastaro daramatzat hemen, Eritzen euskara ikasten."

"Gaskuen jende gutxi egiten du euskaraz, herrian gaztelaraz hitz egiten dugu. Lagunen batekin, Basaburuko jendearekin, bai, baina bestela ez."

PABLO, ERITZEKOA

"Bi urte daramatzat nik Eritzen euskara ikasten, eta oso zaila egiten zait."

MIKEL, IRAKASLEA, AIZARROZKO BIZTANLEA

"Oso gogotsu daude, beti ikasteko prest, pozik gainera."

"Maila hobetzen ari dira, orain falta da haien artean euskaraz egitea, eskolan bezala klasetik aterata eta erdaraz hasten baitira."

"Ea datorren kurtsorako jende gehiago dugun. Buzonea egingo dugu esku-orriekin Atetz, Odieta, Imotzen..."

MERTXE, ERITZEKO BIZTANLEA ETA MADRILEN JAIOA

"Haurrek ekarriko dute euskara, baina Eritzen haur gutxi daude."

JAVIER, ERITZEKOA

"Nire gurasoak euskaldunak ziren, hemengoak, Eritzekoak. Ama guztiz euskalduna eta aitak pixka bat bazekien, baina etxean gaztelaraz egiten genuen beti. Eta Muskizko lehengusuekin ezin ulertu, haiek erdaraz jakin ez eta guk euskaraz jakin ez."

PILARTXO, AROZTEGIKO BIZTANLEA ETA IRUÑEAN JAIOA

"Euskara gure hizkuntza da, horregatik ari gara ikasten, garrantzitsua da zaintzea, baina zaila egiten zaigu ikastea."

"Udan gehiago egiten dugu euskaraz, baina neguan etxe barruan egoten gara eta aukera gutxiago dugu euskaraz egiteko."

JOSE, AROZTEGIKO BIZTANLEA ETA MENDIGORRIAN JAIOA

"Gure etxean zerbait egiten genuen duela 40 urte, baina duela 20 bat urte hasi nintzen euskara ikasten berriz ere."

"Herriko batzuekin egiten dugu, baina gutxi. Nik uste egun batean hasiko garela euskaraz hitz egiten, gogoia badugu, baina ez dugu egiten."

Eta bertso bat ere prestatu digute, hementxe dute:

*"...Pulunpeko mutila Eritzen daukagu
eta guk oso pozik kantatuko dugu,
gure hizkuntza zaharra ikasi nahi dugu
Atezko herrietan zabaltzeko..."*





Larraintzarko liburutegiko euskal irakurketak

Askotan aritu gara liburu batzuen gomendioaz, liburu interesgarriez eta ez hain interesgarriez. Oraingoan, zuei gure gomendioak irakurtzea errazte aldera, Larraintzarko liburutegira jo dugu. Oskar liburuzainak liburutegian eta euskaraz idatzita dauden bost liburu gomendatu dizkigu, hementxe dituzue. Animatu, liburutegira joan eta hartu itzazue!



SUMISIOA, **Michel Houellebecq**

Politika fikziozko eleberri da, une poetikoak, komikoak eta melodramatikoa biltzen dituen fabula politiko eta morala. Houellebecq-ek gogoeta egiten du mende hasierako gizaki guztiok geure bizitzan sumatzen ari garen eraldaketa sakonaren inguruan



KOADERNO HANDIA, **Agota Kristof**

Munduko anaia biki gaiztoenak dira liburu honetako protagonistak. Esaldi labur eta zuzenez idatziko dute biki ttiki hauek beren koaderno handi partikularra, beren egunkari ezkutua. Haur idazkera tankeran idatzia, liburua hatzetan itsasten den horietakoa da.

Agota Kristof hungariarrak Suitzara ihes egin behar izan zuen neskatila zelarik eta Milan Kundera eta Europa ekialdeko beste hainbat idazlek duten estilo zorrotzaren jabe da. Saint Exuperyk Hungarian jaio izan balitz idatziko zukeen liburua. Umore beltzaren zale bazara... Ze arraioren zain zaude umore beltzaren zale egiteko?



ADISKIDE PAREGABEA, **Elena Ferrante**

Idazleen ikusgarritasuna hain handia den garaiotan, berezia da bere identitatea ezkutatzaren duen idazle bat. Orain hogei urte hasi bazen ere argitaratzen, ez dakigu nor den Elena Ferrante —berau goitizena du ziurrenik—. Edonola ere, horrek ez du eragotzi bere obra zabaltzeko izana: hainbat hizkuntzatarat itzuli dute, harrera oso ona eduki du, eta Italian urteko literatur fenomeno da Roberto Saviano Strega sarietarako izendatu ondotik. 2011 eta 2014 artean tetralogia bat argitaratu zuen, eta Adiskide Paregabea da, hain zuzen, obra luze horren lehen atala. Euskaraz irakur dezakegu orain, Fernando Reyren itzulpenean.



EZ ZEN DIRUAGATIK, **Ane Jaka**

Olga da Ana Jakaren nobelako protagonista nagusia eta narratzailea. 40 urtetik gorako emakumea da, «atipikoa» eta «kontraesan handiak dituen», egileak dioenez. Ez du ohiko emakumearen papera betetzen: etxean nahiko desastrea da, bakarrik bizi da, ez du lanik, baldarra da.... Badu literaturan ia beti gizonezkoei dagokien ezaugarri bat: «pikarria» da; baditu, ordea, aldi berean, «feminitateari lotzen zaizkion ezaugarri batzuk» ere, «gizonekiko dependentzia, adibidez». Bere bizimoduaren berri «apaindurarik gabeko» kontaketa baten bitartez ematen du Olgak, eta horrek markatzen du «eleberriaren tonua», Jakak dioenez. «Gauzak diren bezala kontatzen dira, gordintasun osoz».



NEVADAKO EGUNAK, **Bernardo Atxaga**

Renon (AEB) egindako hamar hilabete hartutako ohar eta ideietatik abiatuta idatzi zuen kronikatik nobelarako bidea egiten duen lana. Liburua idazten hastean buruan generorik ez zuela azaldu zuen Atxagak liburuen aurkezpenean. «Pieza heteroklitoak» dira, gai oso desberdinez idatzia eta oso modu desberdinean.

Testuen batasuna bi ardatzen inguruan egituratuta daude: testuek kronologia bat jarraitzen dute, hau da, pieza bakoitza Nevadan egindako egonaldiko egun jakin batera loturik dago. Eta, bestetik, motiboak edo «elementu errepikakorrak» daude: desertua, zaldi basatiak, edo hildako haurrak, esaterako. Gai horiek pieza bat baino gehiagotan errepikatzen dira eta ematen diote lanari koherentzia bat. Obabakoak-en «ugaritasuna» eta Soinujolearen semea-ren «trinkotasuna» biltzen ditu Nevadako egunak lanak.

Lohiaz betetako BTT martxa

Maiatzaren 15ean izan zen Basaburuko IX. Mendi Bizikleta Martxa. Euriz bustitako asteak lohia protagonismoa iragartzen zuen, eta hala izan zen, lohiak guztiz baldintzatu zuen 33 kilometroko martxa, baldintzatu eta ederki gogortu ere.

Beste urteetan baino jende gutxiagok parte hartu zuen, 42 partaidek baino ez; gehienak zonaldekoak, baina baita Iruñeritik zein Gipuzkoatik etorritakoak. Aipatzekoa da antolatzaileak eta boluntarioak prest zeudela jende gehiago hartzeko, eta ederki antolatuta zuten dena, ibilbidearen prestaketatik hasi eta hamaiketakoaren eskaintzaraino.

Jauntsarasko ikastetxetik hasi zen proba, errepidearen bestaldeko ibilbide ederretik barna. Lohiak nabarmen gogortu zuen hasiera hori, eta txirrindulari bat errekarara ere erori zen harrizko zubi estua igarotzen ari zela. Zorionez zauririk ez zuen egin. Aizarotz eta Orokieta zeharkatuta hasi zen benetako gogortasuna. Olatik igaro eta Arrarats aldera egin zuten txirrindulariek, Otsola ingurura igo arte. Benetan gogorra izan zen zati hori, eta arazo mekanikoez gain

eroriko zenbait ere izan ziren, baina larritasunik gabekoak.

Otsolatik behera zen ibilbide gehiena. Han malda gogor batzuk ere bazeuden, indar gutxi zeukaten txirrindulariak erruz sufritzera kondenatu zituztenak. Azkenean 40 txirrindulari iritsi ziren helmugara, eta bi arazo mekanikoengatik erretiratu behar izan zuten. Irabazlea Asier Juanbeltz beruetearra izan zen. Ordubete eta 43 minutu besterik ez zuen behar izan proba amaitzeko. Azkenekoek ia 4 ordu behar izan zituzten. Aurrenekoek probaren edertasuna eta haien gozamina azpimarratzen zuten bitartean, azkenekoek gogortasuna eta sufrimendua aipatzen zuten, baina ederki pasa zuten guztiek.

Guk Asier Juanbeltz irabazlearekin hitz egin dugu.



Bolondres koadrila ederra elkartu zen

ASIER JUANBELTZ

Gogorra egin al zitzaizun lasterketa?

Teknikoki nahiko ohituak gaude halako ibilbideetara, baina lohiarekin askoz gogorrago egin zen, baina ederki disfrutatu genuen, hori bai, genuen energia guztia emanda.

Suposatzen dugu ibilbide hori behin baino gehiagotan eginda edukiko duzula ezta?

Bai, beste urte batzuetan ere egin dugu, eta aurtent, igandeko martxa baino lehen, ostegunean bueltatxo bat eman genuen ibilbidea eginez. Erbitiko lagun batek eta biok egin genuen, lurra nola zegoen ikusteko. Eta horrek ere laguntzen du, nabaritu zen zeinek ezagutzen zituen bideak eta zeinek ez.

Nola joan zen lasterketa aurreko postuetan?

Atera eta segituan hasi zen jendea egurra ematen. Lau joan ginen aurrera, eta Jauntsarasko ha-

ritzetara iritsita jendea atzean geratzen hasi zen. Orduan Ordiziko Mikel San Juanek eta biok egin genuen aurrera elkarrekin. Orokietara iritsi eta Olako jaitsieran atzean utzi nuen, baina gero igoeran itxoin egin nion eta elkarrekin joan ginen goraino. Gero beherakoan utzi nuen atzean eta bakarrik joan nintzen Jauntsaratsa.

Denbora gutxian egin zenuen ibilbidea, agian ez zen hamaiketakoa ere egonen...

Ba ez, iritsi nintzenean ez zegoen ezer. Bizikleta garbitu eta gero hasi ziren txistorra eta xingarra prestatzen. Gainontzekoak iritsi zirenerako prest zegoen jada, beraz momentu onean iritsi ziren. Eta askotan esaten da irabazleek duten meritua, baina 4 orduz sufritzen egoteak meritu handia dauka, guk 2 ordu baino gutxiago eman genituen soilik.



2015eko APIRILA

Gure alderdian izan ziren Jaiotzak eta Heriotzak

Jaiotzak:

ODIETA

GELBENTZU: Lur Irure Subies, Alfredo eta Naiararen alaba, 2016ko apirilaren 25ean jaioa Gelbentzuko bentan.

ULTZAMA

ORKIN: Iraia Larraiotz Uria, Asier eta Amaiaren alaba, 2016ko apirilaren 7an jaioa Migelenean.

LIZASO: Ibai Fernandez Portillo, Gabriel eta Maiteren semea, 2016ko apirilaren 10ean jaioa.

Ongi etorri jaio berriei eta zorionak beren gurasoei!

Heriotzak

ANUE

LEAZKUE: Carlos Orkin Gaskue, 2016ko apirilaren 22an hil zen (*Murritxeneko* semea)

BASABURUA

AIZAROTZ: Carlos Erbiti Garralda, 2016ko apirilaren 24an hil zen.

IMOTZ

OSKOTZ: Miguel Martin (Tiniko) Olaetxea Gerendiain, 2016ko apirilaren 26an hil zen. Sastrearen etxeko semea.

ULTZAMA

AUZA: Fidel Altsua Toral, 2016ko apirilaren 8an hil zen. Eskolako. Juan Ziaurritz Elizondo, 2016ko apirilaren 18an hil zen. Alkozko *Martikoneko* semea eta Auzan bizi zena. Romero Aizpuruaren senarra.


Gure oroimenean izanen zarete.



Lur, aita eta Ekia.



Iraia



Ibai



Carlos



Fidel



Juan



Tiniko

Erbinudea eta tximeleta erraldoia

Gure irakurle maiteei esker hilabete honetako atala bete dugu. Email bidez bi argazki bidali zizkiguten, biak herri beretik: alde batetik Etsaingo Alicia Arangurennek bertako erbinude baten irudia bidali zion eta bestetik Amaur Antzanok sekulako tximeleta handi baten argazkiak bidali zion. Zuen omenez, beraz, artikulutxo hau!



arrantzan. Inoiz edo behin, atzeko hanketan bermatuta eta zutik ikusiko dugu lurraldea arakatzeko, ea harropakinik dagoen. Eskualdeko basozain batek esan digu gurean arraroa dela ikustea, naiz eta noizean behin, baten bat ikusi.

Hasiko gara mustelidoen familiakoa den ugaztun honi buruz hitz egiten: Euskal Herrian izen desberdinak jasotzen ditu, hala nola, Bizkaian sandera eta ogigazta (zergatik ote?) eta Iparraldean Andderederra, baina gurean, batez ere, erbinudea deitzen diogu. . European, Ipar Amerikan eta Asiako erdialdean bizi da.

Harrapari fina, beti dabil ehizan, bere metabolismoa "martxan" mantentzeko askotan jan egin behar baitu. Gehienok ezagutzen dugu oilategietan bera edo haren familiako baten batek egiten dituzten saraskiengatik, baina bestela ez du arazo berezirik sortzen. Udan erreka ibarretan bizi ohi da eta neguan etxebizitza zaharretako harrien artean. Oso animalia mugitu eta urduri da eta saltoka ibiltzen da; badaki zuhaitzetara igotzen eta igeri egiten, eta, ondorioz,



Badakizu atal honetan saiatzen garela bitxikeria eta pasadizoak ekartzen testua erakargarriago egiteko, eta pasadizo eta tunelei buruz hitz egiten: oso animalia kuriozkoa da erbinudea, eta beste animalien gordelekuetan sartuta ehizatzen ditu. Duela pare bat urte Suitzako Hadroien Talkagailu Handia (argiaren abiadurarekin eta halakoekin esperimentuak egiteko lur azpiko traste erraldoia) geldiarazi behar izan zuten erbinude bat kable artean sartu eta kiskali zelako... Beste bitxikeria batzuk kontatu eta beste "bitxo" batera pasako gara: Arriskuan dagoenean, etsaiak uxatzeko, ipurdi inguruko guruin batzuetatik kiratsa duen jariakin bat botatzen du.

Kairoletan 8-10 urte bizitzera iritsi badaitekeen ere, naturan urte bete edo bizi ohi da. "Gautxoria" dugu gure laguna, zientifikoek diote gau batean, 2 km ibiltzen ahal dela. Eta dakizuenek odola asko gustatzen zaio, eta hori da jaten duen lehenengo gauza.

SATURNIA PYRI

Ez dugu haren izena euskaraz aurkitu, nahiz eta hau ere gurean noizbehinka ikusi ahal den. Gaztelaraz "gran pavón" deitzen diote. Europako intsekturik handiena dugu eta argazkian ikusten den bezala, 6 urteko umearen eskua baino handiagoa izan daiteke. Emeak 15 zentimetro baino gehiago neurtzen ahal du. Zalantzarik gabe, hegoetan duten borobil horiek oso deigarriak dira: hontza baten begiak dirudite eta harrapariak beldurtzeko erabiltzen dituzte! Haien tamainaz eta "borobilez" harago, oso bitxia iruditzen zaigu jakitea emeek 20 kilometroko feromona arrastoa uzten dutela arrentzako.



ZORIONAK ZUEI!



Jorge



Olga



Amaia



Mantentze-lanak Instalazioak Konponketak
Argi publikoak Proiektuak Aurrekontuak
Boletinak eta Ziurtagiriak

KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

629 31 53 32 - 722 766 835

Lizaso

karikolaregoitz@gmail.com

- Instalaciones Solares Térmicas
- Instalaciones Solares Fotovoltaicas
- Calderas y Estufas de Biomasa
- Ahorro y Eficiencia Energética



- Eguzki-instalazio termikoak
- Eguzki-instalazio fotoboltaikoak
- Biomasa galdarak, berogailuak eta lurreko suak
- Aurrezki eta eraginkortasun energetikoa

685 907 634 - 685 907 635 tedsna@tedesna.com www.tedesna.com



DABID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO- ETA INDUSTRIA-PINTURA

TEL: 678 623866

argapin@hotmail.com

gotelet-a kentzea / paretak leuntzea
fatxadak zaharberritzea
iragazgaizleak (impermeabilizaciones)
kalitatea eta garbitasuna
aurrekontuak konpromisorik gabe

Sateliteari esker, internetera
konektatu zaitez



Senatel

Telecomunicaciones

848 410 500

Sta. Vicenta María 14 31012

IRUÑEA

info@senatel.es



Internet donde
no llega nadie



Julen



Nare



UXUE



JON

RUGBY AREA GAUPASA 16

**MILA ESKEK
ERRUGBIA
BULTZATZEGATIK!!**

IMUCHAS GRACIAS
POR IMPULSAR EL RUGBY!



5 URTEURRENA ANIVERSARIO LARRAINTZARKO ESKOLA ESCUELA DE LARRAINTZAR

EGITARAU / PROGRAMACIÓN

12:00 Festa irekiera / Apertura de fiesta

12:15 Liplub aurkezpena / Presentación liplub

12:30 Eskola onen bidaia / Recorrido por la escuela

Erakustaldia / Demostración: Zumba, Judo, Euskal dantza

14:00 Bakaria / Comida

(Tantak, Apatzaberrin, Lizarola denda, Larraintzako benetan eta eskola)

Ondoren: Haurrentzako / Para niños y niñas

Erakutsak, tailerrak...

Konferentzia: Leizaola Nahi, Mikel eta Markel

PUZGARRIAK ARGAKZI ERAKUSKETA

1967 1968 1969 1970 1971 1972 1973 1974
1975 1976 1977 1978 1979 1980 1981 1982 1983
1984 1985 1986 1987 1988 1989 1990 1991 1992
1993 1994 1995 1996 1997 1998 1999 2000 2001 2002 2003 2004 2005 2006 2007

2016 Larraintzar
EKAINAK 11 JUNIO

VIII. Cross Popular - VIII. Herri Krossa VALLE DE ANUE - ANUEKO IBARRA



Salida Iniziativa: Olatue, sábado 10 de Junio a las 10:00 h

Inscripciones Iniziativa: Olatue, sábado 11 de Junio a las 10:00 h

Precio Participación: 10 €

ULTZAMALDEA, KULTURAZ BETEA!

VII. MAMIAREN EGUNA VII DÍA DE LA CUAJADA

Artisauak
artesanos
dantzariek
muska...

10:30 Ardi jeztea, ile mozketa, gorua egitea
11:30 Pilota partidua
12:00 Mamiaren egitea
12:15 "Goxua" Lehen master chef gaztea
13:00 Lajos pilotariari omenaldia

10:30 Ordeno, esquila ovejuna, rueca
11:30 Partido de pelota
12:00 Elaboración cuajada
12:15 Primer master chef junior "Goxua"
13:00 Homenaje al pelotari Lajos

**EKAINAK 12 JUNIO
LARRAINTZAR**

Intentalizazioa

Laguntzaileak



Euskararen eguna Ekainak 18



AXOLAGABE TALDEAK AURKEZTEN DU

"Ser o no Ser"

EKAINAK 10 20:00
EKAINAK 11, 18:30 ETA 20:30

GIZARTE
ETXEAN

